

DERIOKO UDALAREN INSTALAZIOETAN LOKALEN ERABILERA PRIBATIBOA EGITEAGATIKO ETA KULTURA JARDUEREN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Derioko Udalak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraikiz, eranskinean zehazten diren tasak eta prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik, zerbitzu publikoak emateagatik edo subjektu pasiboak aipatu, eragin edo mesede egiten dieten toki eskumeneko administrazio jarduerak egiteagatik, ordenantza honetan eta zerga kuotei buruzko eranskinetan adierazten diren baldintzetan.

2. artikulua

Ordenantza Derio udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua

Ordenantza honen ondoretarako, Derioko Udala titularra den udal instalazioetan kultur jardueren zerbitzuak emateak eratzen du zergapeko egitatea, bai eta Kultur Birikako eta Larrabarri baserriko aretoen erabilera pribatiboak ere.

Lokalen erabilera pribatibo edo udal instalazioetako kultur jardueren zerbitzuak honako hauek izango lirateke:

- Aretoen erabilera pribatiboa Kultur Birikan eta Larrabarri baserrian.
- Udal tailerrak, ikastaroak eta antzeko jardueren zerbitzua ematea.
- Udalekuak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

Honako hauek izango dira, zergadun gisa, tasen eta prezio publikoen subjektu pasiboak: Tokiko Ogasunen 5/1989 Foru Arauaren 24. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak zein juridikoak eta entitateak, baldin eta lokalen erabilera pribatiboa eskatzen badute edo Derioko Udalak eman edo egiten dituen tokiko zerbitzuez edo jardueraz gozatzen badituzte euren onura partikularrerako, ordenantza honen 3. artikuluan jasotzen diren kasuen arabera.

5. artikulua

Tasak eta prezio publikoak derrigor ordaindu behar dituzte:

- a) Pertsona fisikoek edo juridikoek eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenek.

b) Pertsona fisikoek edo juridikoek eskatu ez baina, horien egite edo ez egiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egite edo ez egite horiek leporagarri dituztenek.

6. artikulua

Ordenantza honen ondorioz sortzen diren zerga zorrei erantzun behar diete subjektu pasiboek eta tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak, hala badagokio. Aipatutakoa ordenantza honen eranskin gisa jaso da.

IV. SALBUESPENAK, MURRITZAPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak Udal Ogasunari aplikatuko zaizkion xedapen orokorretan edo Ordenantza honen eranskineko epigrafeetan ezarritakoaren arabera emango dira.

Derioko Udalean erroldatuta ez dauden pertsona fisikoek, eta bai udalerrian kokatuta ez dauden pertsona juridikoek ere, ehuneko 50- 100 bitarteko errekarua izango dute. Errekargu hori ez zaie aplikatuko II. Eranskinean jasota dauden tarifei.

Udaleku zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasaren gaineko hobari hauek ezarri dira:

- Bigarren seme-alabak % 50eko hobaria izango du tasan.
- Hirugarren seme-alaba tasa ordaintzetik salbuetsita egongo da.

Udal lokalen erabilera pribatibogatiko tasa ez dute ordaindu behar Udal Elkartearen Erregistroan inskribatuta dauden herriko elkarte guztiek, bizilagunen elkarteek eta antzekoek, baldin eta xede soziala, kulturala, kirolekoa eta interes publikokoa badute eta udalerrian kokatuta badaude.

Derio udalerriko Kultur Arloko Zerbitzuak arautzen dituen Ordenantzaren 3. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako tasa ordaintzeko hobaria edo salbuespena Alkatetzak emango du, Arloko zinegotziak txostena egin ondoren (elkartearen xedearen arabera). Udalbatza Osoari horren berri emango zaio egingo duen lehenengo ohiko ekitaldian.

V. ZERGA OINARRIA.

8. artikulua

Zerga oinarria osatzen du zerbitzua edo erabilera pribatiboa gauzatzen den unitate bakoitzak, eranskinean jasotzen den tarifa bakoitzak ezartzen duenaren arabera.

VI. ZERGAREN KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota zehazteko, tailerren eta udalekuen zerbitzuari dagokion tasarako prezio publiko bat finkatuko da, edo ordenantza honetako eranskinean ezarritako tarifa finkoa ezarriko da.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

Tasa edo prezio publikoa sortzen da zerbitzua edo jarduera gauzatzen denean edo udal lokalen erabilera pribatiboa egiten denean.

VIII. LIKIDATZEA ETA ORDAINTZEA

11. artikulua

Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da dagozkion tarifek ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraikiz. Hori guztia autolikidazio araubideko tasak eta prezio publikoak kobratzea eskatu ahal izatea eragotzi gabe.

Zerbitzu publikoa edo administrazio jarduera eman edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

IX. TASAK ETA PREZIO PUBLIKOEN KUDEATZEA

12. artikulua

Ordenantza honen menpeko tasak eta prezio publikoak likidatzeari, dirua biltzeari eta ikuskatzeari dagokion kontu ororako, baita zergei dagozkien arau-hausteak sailkatzeak eta kasu bakoitzean bidezkoak diren zehapenak zehazteko ere, aplikatu egingo da Ordenantza Fiskal Orokorrean eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa.

X.- AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2018ko urriaren 23an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2019ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

Tasaren eta prezio publikoen arauketan aurrekontuei buruzko foru arauak edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzen dituzten aldaketek, bidezkoa bada, kasuan kasuko isileko aldaketa eragingo dute ordenantza fiskal honetan.

1.- ERANSKINA- DERIOKO UDALAREN UDAL INSTALAZIOETAN KULTUR JARDUEREN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK.

UDAL TAILERRAK ETA HIRIKO UDALEKUAK.

Tokiko Gobernu Batzarrak, kasu bakoitzean jardueraren prezioa onartuko du ondoko tartetan, halaber, hobariak eta salbuespenak jarri daitezke indarrean dagoen arauaren arabera

EGUNEKO PREZIOA 2 eta 30 euro artean.

ASTEKO PREZIOA 25 eta 80 euro artean.

HILEKO PREZIOA 80 eta 320 euro artean.

URTEKO PREZIOA 80 eta 400 euro artean.

2. ERANSKINA- KULTUR BIRIKA ERAIKINEAN ETA LARRABARRI BASERRIAN LOKALEN ERABILERA PRIBATIBOA.

A) ARETO TXIKIEN ETA LARRABARRI BASERRIAREN ERABILERA PRIBATIBOA

25€/ 90 minutu bakoitzean

200 €/egun osoa

B) KULTUR BIRIKAKO TERRAZA

200€/egun osoa

C) EUZKADI ARETOAREN ERABILERA PRIBATIBOA

300 €/egun osoa

D) EUZKADI ARETO, ATRIO ETA/EDO TERRAZAREN ERABILERA PRIBATIBOA

400 €/egun osoa

Erabilera pribatibo barruan honakoak daude:

- Argitze orokorra
- klimatizazioa
- oinarrizko megafonia
- proiektagailua eta pantaila.
- Mikrofonoa
- Ohiko garbiketa

Erabilera pribatibo barruan ez daude honakoak:

- pertsonala
- aparteko garbiketa (kasu honetan erabiltzaileak ordaindu beharko du gastua)